

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

6027

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 18koa, HABEko zuzendariarena, udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei, udal titularitasuneko euskaltegi publikoei, 2024-2025 ikasturterako euskara-ikastaroengatik esleitutako dirulaguntzak argitara ematen dituena.

2024ko irailaren 13ko EHAAn argitaratu zen udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiei, udal titularitateko euskaltegi publikoei 2024-2025 ikasturteko euskara-ikastaroengatik esleituko zaizkien dirulaguntzen deialdia egin eta horiek emateko baldintzak eta prozedura arautzen dituen HABEko zuzendariaren 2024ko abuztuaren 26ko Ebazpena.

Aipatu Ebazpenaren 7.4 oinarriak dioenez, dirulaguntzak esleitzen dituen ebazpenaren berri onuradun bakoitzari emateaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira emandako dirulaguntzak eta horien onuradunak. Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– HABEko zuzendariaren 2024ko abuztuaren 26ko Ebazpenaren babesean esleitutako dirulaguntzak eta horien onuradunak argitara ematea. Horien zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Donostia, 2024ko abenduaren 18a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

2024ko abenduaren 31, asteartea

ERANSKINA

Onuraduna	Zenbatekoa (eurotan)
Laudioko udal euskaltea	500.155,79
Aitzol udal euskaltea	415.465,19
Arrasateko udal euskaltea	421.357,89
Azpeitiko udal euskaltea	303.929,89
Beasaingo udal euskaltea	242.377,56
Bedita larrakoetxea udal euskaltea	155.882,18
Bergarako udal euskaltea	342.772,67
Debabe udal euskaltea	294.369,37
Eibarko udal euskaltea	376.309,27
Errenteriako udal euskaltea	459.512,86
Hernaniko udal euskaltea	317.864,43
Hondarribiko udal euskaltea	241.948,32
Irungo udal euskaltea	395.088,76
Lasarte-oriako udal euskaltea	296.795,23
Legazpiko udal euskaltea	147.556,72
Leintz udal euskaltea	218.264,88
Pasaiaiko udal euskaltea	387.407,87
Urretxu-zumarragako udal euskaltea	310.062,40
Zarauzko udal euskaltea	241.703,91
Aita villasante udal euskaltea	205.028,68
Arrigorriagako udal euskaltea	184.594,90
Barakaldoko udal euskaltea	1.681.605,02
Basauriko udal euskaltea	632.495,70
Durangoko udal euskaltea	372.006,40
Enkarterriko udal euskaltea	306.496,01
Erandioko udal euskaltea	258.472,81
Galdakaoko udal euskaltea	382.004,56
Getxoko udal euskaltea	647.408,70
Mastitxu udal euskaltea. Leioako udala	296.190,23
Mungiako udal euskaltea	192.584,75
Muskizko udal euskaltea	237.730,34
Portugaleteko udal euskaltea	518.555,37
Santurtziko udal euskaltea	382.630,85
Sestaoko udal euskaltea	220.400,10
Sopelako udal euskaltea	184.421,33
Trapagarango udal euskaltea	278.001,18
Txorierriko udal euskaltea	317.414,04
Zornotza udal euskaltea	214.305,27
Guztira	13.581.171,43